

Usurbilgo Udala

2017KO UZTAILAREN 26AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi dute: Xuban Zubiria Elexpe, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2017ko uztailaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:

* 2017/06/27KO BILKURA.

Josune Urkola eta Mirari Azurmendi abstenitu egin dira ez zirelako ekainaren 27ko bilkuran izan.

Gainontzekoen aldeko botoarekin eta aipatutako bi abstentzioekin 2017ko ekainaren 27ko bilkurako akta gehiengoz onartu da.



Usurbilgo Udala

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: EKAINAREN 19TIK UZTAILAREN 14RA (2017/0636-2017/0756).

Alkatetzak 2017ko ekainaren 19tik uztailaren 14ra bitartean (2017/0636–2017/0756) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2017/0766 DEKRETUA BERRESTEA.

Alkateak dekretuari buruzko azalpenak eman ditu.

2014tik hasita, udal honek San Marko Mankomunitateko aurrekontuak errekurritu dituela adierazi du.

Kasu honetan gertatu dela dio 2017ko aurrekontuen aurrean udal honek erreklamazio batzuk aurkeztu zituela, baina 2017ko ekainaren 6ko batzarrean Mankomunitateak erreklamazio horiek ez zituen aintzat hartu eta behin betikoz onartu ziren.

Nahiz eta gauza batzuetan aldaketak egon diren eta 2017ko aurrekontuetan jasotzen den zerbitzuaren arabera aurrekontuen bidetik abiatu diren, beraien ustez ariketa hori ez da ondo egin. Udal honek jasotzen duena baino dezente gehiago ordaintzen diola San Markori adierazi du. Hori dela dio behin eta berriz erreklamatzeko ari direna.

Udal honen eta herritarren interesak defendatzeko auzi-errekurtsoa jartzera derrigortuta daudela dio.

Azpiratu du ez dela soilik 2017ko aurrekontuei auzi-errekurtsoa jartzea, horren atzean badagoela dio hondakinen tratamenduak dauzkan kosteen ulerkera bat. Udal honek bilketan lan bat egiten du eta lan horrek bestelako aurrekontu batzuk eskatuko lituzkeela esan du, nolabait hondakinen kudeaketaren hierarkiak eta Europatik datozen printzipioak hobeto jasoko lituzkeenak. Beraz, hor fondoko eztabaida bat dagoela uste dute eta inportantea dela dio eztabaida horri heltzea eta aurrekontuak horren arabera egitea.

Josune Urkolak adierazi du beraien jarrera kontrakoa izango dela. Beraien ustez Udala mankomunitate baten barruan dago eta bertako arauak edo irizpideak onartu behar ditu.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea kasu hau Mankomunitatea osatzen duten beste herrietan gertatzen den.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio San Marko Mankomunitatean tratamendu desberdina egiten duten udalerriak daudela. Datuetan oinarrituta, gaur egun badaudela dio herri batzuk gaikako bilketan oso datu altuak lortzen dituztenak, Oiartzun, Hernani eta Astigarraga. Lezo eta Pasaiak momentu batzuetan emaitza oso onak lortu zituzten baina pixkanaka atzerapen bat eman dutela esan du. Ondoren, emaitza nahiko txarrak edo ez hain onak dituztenak leudeke, Urnieta, Errenteria, Lasarte eta Donostia.

Herri horien tipologia eta ze emaitzak dituzten eta zer nolako bilketa egiten duten ikusita, oso izaera desberdinekoak direla azpimarratu du.

Herri guzti hauek mankomunitatean daude, suposatzen da gauza askotan interes komun bat dutela, baina hondakinei ematen zaien izaera eta tratamendua eta ematen den zerbitzua ez datoz bat. Adibide gisa aipatu du Usurbilen erabiltzen diren kuboak Udalak erosten dituela, baina atez atekoa egiten ez duten herrietarako erosten diren kontainerrak mankomunitatearen bidez erosten direla, hau da, kontainerrak denen artean ordaintzen direla.

Jarraitu du esanez Añarben ez dela aurretik aipatutakoa gertatzen. Añarbetik ura jasotzen duten herrien artean desberdintasunak egon daitezkeela dio baina zehaztu du gutxi gorabehera herri guztiek antzeko zerbitzu bat jasotzen dutela mankomunitatetik. Hori Mankomunitatearen funtzionamenduan ere islatzen dela adierazi du, izan ere, Añarbeko batzarrean dauden eztabaidak ez dira hain markatuak etiketa politikoengatik edo herrien desberdintasunagatik. Halaber, mankomunitatearen izaera askoz nabarmen eta garbiagoa dela esan du.

San Markosen, aldiz, nola hain modu desberdinean egiten diren gauzak herri batetik bestera, beraien ustez horrek eskatzen duena da tratamendu eta ordainketa espezializatuagoa edo herri bakoitzari zuzenduagoa.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea eskatzen duten hori Mankomunitatean bertan eskatu duten.

Alkateak erantzun dio eskatu dutela bai eta urteetan esan zaiela eskatzen duten horrek ariketa kontable oso konplexua eskatzen duela, ezintasun bat ere adierazi izan zaie. Gaineratu du 2017ko aurrekontuei begira alde aurretik ere bildu zirela eta bazirudiela borondate edo gogo bat bazegoela gauzak beste era batetara egiteko, baina azken emaitzak jasotzen duena da aparientzia aldetik zerbait desberdina, baina mamiari benetan heldu gabe. Praktikan Usurbilgo Udala ez dela hobeto atera esan du, baizik eta okerrago eta guzti esango lukeela adierazi du.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du noski mankomunitatean daudela eta bertan erabakitzen diren gauzak denentzako beharko luketela, baina bere ustez alderantziz gertatzen da. Mankomunitatea da herrien zerbitzura egon behar duena, herriek delegatzen diote eskumena zerbitzu bat emateko. Logikarik ez duena da Mankomunitatea soilik batzuentzako izatea eta hala ere egiten zaizkien galderari erantzunik ez ematea. San



Usurbilgo Udala

Markosen arazo larri bat dutela esan du eta urteetan epaitegietara zuzentzen ari direla esan du. Guzti honen atzetik ze interes dauden denek dakitela dio, hau da, erraustegia eraikitzea.

Mankomunitate bat zertarako behar duten galdetu du, Udalak behar dituen zerbitzuei ez baldin badie erantzuten. Urteak daramatzatela horrela gaineratu du. Udala atez atekoarekin hasi zenetik, nahiz eta batzuek esan Udalak nahi ez zuelako atera zela Mankomunitatetik, bere ustez alderantziz izan zen, momentu hartan ere Usurbilgo herritarrek nahi zuten zerbitzua ez zuelako ematen mankomunitateak.

Josune Urkolak adierazi du bere ustez mankomunitatea ez dela herri batzuentzako bakarrik, baizik eta mankomunitatea osatzen duten herri guztientzat dela. Beste kontu bat dela dio gustatzen zaigun ala ez egiten dutena, edo antolatuta dagoen bezala egotea.

Alaitz Aizpuruak errepikatu du Udal honi mankomunitateak zerbitzu batzuk ez dizkiola prestatzen eta udalak nahi dituen zerbitzu batzuk kanpoan ordaindu behar dituela, mankomunitatetik kanpo. Hondakinen beste mankomunitate batzuetan ematen den zerbitzuaren arabera ordaintzen da, baina San Markosen kasuan ez du hori nahi izan.

Josune Urkolak adierazi du badaudela beste zerbitzu batzuk ere soilik herri konkretu batzuetan daudenak baina denen artean ordaintzen direnak, eta horietako bat Usurbil dela zehaztu du, Garbigunea denek ordaintzen dutela esan du baina erabili nork erabiltzen duen galdetu du.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio nahi duenak erabili dezakeela Garbigunea eta Hernani eta Garberan ere badaudela Garbiguneak.

Josune Urkolak galdetu du ea Garbiguneak zergatik dauden puntu konkretu horietan.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio San Markosek horrela erabaki zuelako.

Alkateak gaineratu du aipatu duten bezala Garbiguneak puntu jakin batzuetan daudela eta puntu horiek San Markosek erabakitakoak direla, eta herri batzuek horretan lagundu egin dutela. Usurbilen kasuan Garbigunea jartzeko lurren zesio bat egin zen ikusten zutelako Usurbilentzat ona zela. Gertatzen dena dela dio esaten denean “zerbitzuaren arabera ordainketa bat egin”, beste batzuetan ez dela ikusi inongo ariketa zorrotzik hori egiteko, baina Garbigunearen kasuan bai. Egiten duten kobroa dela dio erabiltzaileak nondik datozenaren arabera, hori horrela, Oiartzun eta Usurbili egiten dien kobroa izugarritzkoa da, nahiz eta Garbigunea erabilgarri dagoen guztientzat. Alkateak aipatu du berak horri buelta ematen diola eta galdetzen du ea



Usurbilgo Udala

Garbigunearen erabilpena hondakinen tratamenduaren hierarkian nola dagoen kontsideratuta.

Garbigunea erabiltzera doan pertsona birziklatze ariketa bat egitera doala azpimarratu du, aldiz, egunero bera pasatzen den Zubietan Donostiako partean dauden kontainerretan koltxoak, etab. egoten direla esan du, eta horiek ez dutela ordaintzen.

Hau guztia horrela, alkateak dio beraien ustez Garbigunearen adibidea dela potentziatu behar den zerbait, Garbigunera doana hondakinen kontzientzia daukan jendea baita.

Beraz, beharrezkoa dela dio egiten den ariketa kontable horretan hondakinen tratamendu eta bilketako irizpideak, eta beren lehentasunak markatzea. Kasu batzuetan, praktika batzuk izango dira saritu beharrekoak praktika zuzenak eta egokiak direlako eta beste batzuk zigortu beharrekoak izango dira, baita ekonomikoki ere, praktika desegokiak direlako. Hain justu ere, hori dela dio San Markoseko aurrekontuetan ikusten ez dutena.

Batzarkideek, 2017/0766 dekretua gehiengoz berretsi dute.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre eta Irene Gartzia Palacios.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

4.- USURBILGO BAKE EPAILE TITULARRA ETA BERE ORDEZKOAREN HAUTAKETA.


Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Hiru eskaera jaso direla baina horietatik batek baldintzak ez dituela betetzen adierazi du. Antolakuntza Batzordean aho batez bake epaile titularra Agustin Esnaola izan zela hautatua jakinarazi du eta ordezeko gisa Laura Gorrochategui.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera.

“Esp.zk.: ID.17/2017-0315

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2017ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran honako erabaki hauek hartu zituen:



Usurbilgo Udala

“LEHENA: Hilabete bateko epea finkatzea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Usurbilgo Bake Epaile titularra eta honen ordezkoa izateko interesa dutenek eskaerak aurkez ditzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioako Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira.

BIGARRENA: Espedientea erakusketa publikoan jartzea aipaturiko epean, interesatuek azter dezaten.

HIRUGARRENA: Erabaki hauek iragartzea Udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Usurbilgo Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Donostiako Epaitegi Dekanoan..”

Aipaturiko erabakiak honako iragarpen hauek izan ditu:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Udaletxeko Iragarki Taulan.
- Udalaren web orrian.
- Donostiako Lehen Auzialdiko Epaitegian.
- Usurbilgo Bake Epaitegian.

Erakusketa publikoko epean, hiru eskaera aurkeztu dira:

Eskatzailea	Bizilekua	Curriculum-a	Euskara
Agustin Esnaola Etxabe	Usurbil	-Unibertsitate mailako institutu bateko idazkari nagusia. -Azken hamabi urtetan Usurbilgo bake epailea. -Batxilergoa.	Ama hizkuntza
Laura Gorrochategui Echepeare	Usurbil	-Saltzailea. -Zuzenbide ikasketak.	B2
Ibai González de Durana Uribesalgo	Andoain	-Ordiziako Udaleko langilea. -Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak.	C1

Ibai González de Durana Uribesalgoren eskaera ez da onartua izan bateraezintasun arrazoiengatik, Udal bateko langilea baita.

Beste bi eskaerak aztertu ondoren, Antolakuntza Batzordeak, 2017ko uztailaren 17an egindako bilkuran, aho batez, Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: AGUSTIN ESNAOLA ETXABE jauna hautatzea Usurbilgo Bake Epaitegiko Epaile Titularra izan dadin.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: LAURA GORROCHATEGUI ECHEPARE andrea hautatzea Usurbilgo Bake Epaitegiko Ordezko Epailea izan dadin.

HIRUGARRENA: Erabaki hauek Euskal Herriko Justiziako Epaimahai Gorenari jakinaraztea, dagokion izendapena egin dezan.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- BETERRI BURUNTZA UDAL MAILAKO TOKI-GARAPENAREN, SUSTAPEN EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN ALORREKO LANKIDETZA HITZARMENAREN BAITAN BATZORDE KUDEATZAILERAKO BI ORDEZKARI POLITIKOEN ORDEZKOAK IZENDATZEA.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, tratatzea berretsi dute aho batez.

Jarraian, Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu. Apirila inguruan Lankidetz hitzarmena onartu zenean, udaleko ordezkariak izendatu zirela aipatu du baina ez hauen ordezkoak eta hori dela dio orain egin nahi dena.


Josune Urkolak adierazi du ordezkariak izendatu ziren momentuan EAJ ez zegoela ados eta orain ere gauza bera.

Jarraian, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp.zenb: HE04/2016-0037

Kontuan hartuta 2016ko azaroaren 29an egindako ohiko bilkuran Beterri Buruntza Udal mailako toki-garapenaren, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorreko lankidetz hitzarmena sinatzea onartu zela, eta batzar hartan bertan Xabier Arregi Iparragirre eta Alaitz Aizpurua Labaka izendatu zirela Batzorde kudeatzaileako Usurbilgo Udalaren ordezkari gisa.

Kontuan hartuz, oraingo honetan Udaltzarrak aipatu ordezkarien ordezkoak izendatzea beharrezko ikusi dela, Udaltzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENENGOA: Jone Urdampilleta Urdampilleta eta Irene Gartzia Palacios izendatzea Batzorde kudeatzaileko ordezkari diren Xabier Arregi Iparragirre eta Alaitz Aizpurua Labakaren ordezkari gisa, hurrenez hurren, Toki-Garapenaren, Sustapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren alorrean Betterri-Buruntza eskualdeko udaletxeak sinaturiko Udal mailako lankidetzak hitzarmenaren baitan.

BIGARRENA: Akordio honen berri Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani eta Astigarragako Udalei ematea, jasota gera dadin.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre eta Irene Gartzia Palacios.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- 2017KO ZERGA-ORDENANTZEN ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENAREN AKATS ZUZENKETA.


Alaitz Aizpuruak azalpenak eman ditu esanez ekaineko plenoan ikasturteko doazen prezio batzuk aldatu zirela ordenantzan eta orain ikusi dela beste aldaketa bat ere txertatu behar dela, hain zuzen ere igeriketako ikastaroena. Orain arte taldeak adinaren arabera sailkatzen baziren ere egokiagoa ikusi dela dio mailaren arabera sailkatzea.

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Ogasun Batzordeak, 2017ko uztailaren 17an ez-ohiko bileran, aho batez, Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi (EH Bildu), Josune Urkola (EAJ) eta Fermin Orue-Echevarriaren (PSE) aldeko botoekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA.- 2017ko Zerga-Ordenantzetan aldaketak behin-behineko onarpena: 2017ko uztailaren 6ko GAO-n argitaratutako Udalbatzarraren ekainaren 27ko akordioaren akats zuzenketa onartzea, ondoren aipatzen den eran:



Usurbilgo Udala

8.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

B1.-OIARDO UDAL KIROLDEGIA

IKASTAROAK IKASTURTEKO PREZIOA

Igeriketa umeak.-

Esaten duenean:

Karramarro	429,20€
Olagarro eta Antxoa	343,90€
Angulak eta Izurdeak	286,15€

Esan behar du:

Karramarro	382,00€
Olagarro eta Antxoa	286,15€
Angulak eta Izurdeak	229,30€

BIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:


Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO SGERC-2 (REZUSTAENEA) SISTEMA OROKORRAREN ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA.

Alkateak gai honi buruzko azalpenak eman ditu esanez Zumarte Musika Eskolako inguruari dagokiola eta aldaketa honen motibazioa dela Musika Eskolan hasiko diren obrak, izan ere, gaur egun dagoen fitxak egin nahi den handitzea ez baitu baimentzen.

Beraz, proposatzen dena da Arauetako Antolamendu Xehatuaren aldaketa bat egitea eta gaineratu du prozeduraren aldetik bere garrantzia duela dio Antolamendu Xehatuarena izatea. Prozedura litzatekeela dio gaur hasieraz onartu, hogei eguneko



Usurbilgo Udala

erakusketa publikoaren ostean, leudekeen alegazioak erantzun eta, ondoren, Udal honek onartu dezake aldaketa hori Foru Aldundiaren onarpenik gabe. Beraz, prozeduraren aldetik mugatuagoa eta arinagoa dela zehaztu du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0065

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, SGERC-2 (Rezustaenea) sistema orokorreko hirigintza eremuan kokatzen den Zumarte Musika Eskola eraikinaren eraikigarritasun fisikoa handitzea eta lerrokadurak egokitzea egungo erabilerak beharrezkoak dituen baldintzetara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETArako beharrezko dokumentua idatzi dute udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andreak eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. Taldeko Nekane Azarola Martinez andreak. Horrekin batera, eremuan bertan dagoen ezkia babesteko beharrezkoak diren neurriak zehazten dira dokumentuan.

ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Aurkeztutako dokumentuaren memoriak honela zehazten du Aldaketaren edukia eta helburua:

EZAUGARRIEN FITXA-ren edukia SGERC 2 REZUSTAENEA sistema orokorraren eremua egungo erabilera etorkizuneko beharretara egokitzeko ezinbestekoak dituen handitze eta birgaitze baldintzetara egokitzea da helburua. Horretarako, beharrezkoak irizten da 2. AZALERAK eta 6. ANTOLAMENDUA atalei dagokien zuzenketak egitea.

Aldaketaren komenitasun eta egokieraren eta justifikazioari dagokionez berriz, honela zehazten da:

Aurreko ataletan justifikatu den moduan, aldaketa puntualaren espediente honek helburutzat dauka hirigintza-estaldura ematea Arau Subsidiarioak aisialdi- eta kultura- ekipamenduko sistema orokor bati - SGERC 2 REZUSTAENEA – onartzen dien eraikigarritasun fisikoa handitzeko. Era berean, planteatzen den handipenari hainbat hirigintza-zehapen egokitzea proposatzen da.

LEGE TXOSTENA



Usurbilgo Udala

Udal idazkariak, Antolamendu Xehakatuaren aldaketarako dokumentua aztertu ondoren, ondoko txostena eman du:

LEGE-TXOSTENA

GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea

Esp. Zenbakia: HZ.01/2017-0379

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, SGERC-2 (Rezustaenea) sistema orokorreko hirigintza eremuan kokatzen den Zumarte Musika Eskola eraikinaren eraikigarritasun fisikoa handitzea eta lerrokadurak egokitzea egungo erabilerak beharrezkoak dituen baldintzetara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETArako beharrezko dokumentua idatzi du udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. Taldeko Nekane Azarola Martinez andereak. Horrekin batera, eremuan bertan dagoen ezkia babesteko beharrezkoak diren neurriak zehazten dira dokumentuan.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak prestatutako dokumentuan biltzen da Aldaketaren xedea eta justifikazioa.

IZAPIDETZA

Ekainaren 30eko 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 30. artikulua zera dio Antolamendu xehatuaren aldaketari buruz:

“Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilia aldatu ahal izango da. Irizpideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututakoa izango da.”

2/2006 Legearen 95. artikulua arabera, Antolamendu xehatuaren aldaketak honako izapidetzea du:

95.2. art. *“Udalak hasierako onespena (...) emango dio plan partzialari. (...) Jendaurrean jarriko du, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian/etan*



Usurbilgo Udala

hasierako onespina emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 egunez egongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera”.

95.3. art. “*Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onespina emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da”.*

95.4. art. “*Udalak plana behin-behingo edo behin betiko –dagokionez- onartzeko, sei hilabete izango ditu gehienez ere, hasierako onespina eman zaionetik kontatuta (...)”.*

95.5. art. “*(...)3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespina behin betiko onespina izango da”.*

2/2006 Legearen **89. art.k** argitalpena eta indarraldia xedatzen ditu:

89.1. art. “*Hirigintzako planen onarpenari dagokionez, plangintza onartu duen herri-administrazioak jendaurrean jarriko du haren eduki osoa (...)”*


89.3. art. “*Artikulu honetako 5. zenbakian aipatzen den argitalpena egin aurretik, hirigintzako planak eta haien aldaketak eta berriskuspenak igorriko dituzte udalek, dagokion foru-aldundko erregistroan sartzeko (...)”.*

89.5. art. “*Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eman dituen organoaren xedapen baten bitartez, behin betiko onespina emateko erabakiak [...]. Behin betiko onespina emateko erabakiak, gainera, dagokion lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian/etan ere argitaratuko dira. Bi kasuetan, oso-osorik argitaratuko dira, bai eta dagokion hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela adierazi ere”.*

Bestade, adierazi behar da, apirilaren 2ko 7/1985 legeak 22.2.c)art.ak xedatutakoaren arabera, **udalbatza plenoari dagokio** plangintza orokorrari buruzko akordioak hartzea “*La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística*”.

Beraz, hasierako onespina eta behin betikoa udalari dagokio. Bi kasuetan, **gehiengo absolutuz onartu beharko da aldaketa**, honela baitio apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.art.ak: “*Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias: II) Los acuerdos que corresponda adoptar a la corporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.*”

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira **eman beharreko pausu nagusiak**:



Usurbilgo Udala

- Hasierako onespina udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Aldaketa 20 egunez jarriko da jendaurrean, GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Aldaketak funtsezkoak balira, berriro ere hasierako onespina emango litzaioke testuari eta jendaurrean jarriko litzateke.

- **Plenoak**, alegazioak ikusita, behin betiko onartuko du dokumentua. Sei hilabeteko epea ezartzen da horretarako, behin hasierako onespina eman ondoren.
- Antolamendu Xehatuaren aldaketa Foru Aldundira igorriko da, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin. Behin betiko onespina GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuko da eta bertan adieraziko da hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela. Antolamendu Xehatuaren aldaketa GAOean argitaratu eta handik 15 lanegunetara sartuko da indarrean.

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2017ko uztailak 14
Udal idazkariak
Garazi Etxeberria San Miguel

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2017ko uztailaren 19an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Irene Gartzia eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:


ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- ERAKUNDE ADIERAZPENA: ALTSASUKO GAZTEEI FISKALTZAREN ZIGOR ESKAERAREN AURREAN.

Alkateak adierazi du gai hau lehendik ere tratatu izan dela Udalbatzar honetan eta berritasuna dela dio, mozio hau motibatu duena, Estatuko Fiskalak uztailaren 4ean hartutako erabaki bat, non gazte hauei sekulako zigor eskaerak egiten zaizkien.

Jarraian, mozioaren hiru puntuak irakurri ditu.

Josune Urkolak adierazi du mozioarekin ados daudela.

Fermin Orue-Echevarriak esan du batzordean adierazi zuen moduan ez dagoela guztiz ados mozioarekin. Bere ustez Altsasun gertatu zena ez zen istripu bat izan, indarkeri kasu bat baizik. Lau pertsonak zaurituta bukatu zutela ospitalean eta atentatua sufritu zuten lauak beren eskubide eta askatasunean biktima izan zirela adierazi du, bi guardia zibilak zirelako eta beste biak hauen bikoteak.

Mozioaren bigarren puntuan esaten da elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, etab., hori ondo dagoela dio baina gorrotoaren kulturarekin hori ezin dela bateragarria izan.

Mozioak ez duela gaitzesten gertatutakoa eta biktimak hoztasunarekin solidaritaterik gabe tratatzen dituela salatu du eta denbora berri hauetan horrelako gauzak ez direla eman behar uste du.

Hirugarren puntuarekin ados dagoela dio. Terrorismo kasu bat bezala ez dela tratatu behar uste du eta kasua ez dela Auzitegi Nagusian eraman behar, baizik eta Nafarroako Auzitegian.

Osoatasunean bozkatu behar denez, ezezko botoa emango duela adierazi du.

Alkateak adierazi du adierazpenaren lehen bi puntuetan oso modu esplizituan esaten dela pertsona guztiekiko giza eskubideen errespetua eta ez dela inondik ere sartzen "zer gertatu zen" azaltzera, hori epaitegiek esango dutela gaineratu du. Berak ez dakiela dio egun horretan Altsasun zer gertatu zen, ez dakiela dio probokaziorik egon zen, eta egon bazen, nondik eta nola izan zen. Adierazpenak baloratzen duen bakarra da printzipio batzuk daudela eta horiek kontutan hartuta, neurritz gaindiko zigor eskaera bat egiten dela.

Beraz, bestelako balorazioetan sartu gabe, adierazpen hau bere horretan onartzeko modukoa dela uste du eta bat datorrela Euskal Herrian bizi den egoera politikoarekin.



Usurbilgo Udala

Alaitz Aizpuruak gehitu du epaiketa ez dela egin eta ez dagoela sententziarik oraindik, fiskaltzaren eskaera bat dela bai, baina ezin dela esan dio soilik fiskaltzaren eskaera bat dela, zeren gogorarazi du gazte horiek kartzelan daudela urriaren 15etik. Biktimak aipatzen direnean, zilegi dela dio biktima guztiak aipatzea.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordetik datorren mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Joan zen urriaren 15ean Altsasuko taberna batean gertatutako egitateen aurrean, non bi guardia zibil eta haien bikoteak zauritu ziren, zein gertaera hauetatik eratorri diren ondorioak ikusirik, Usurbilgo Udalak bakearekiko eta elkarbizitzarekiko bere konpromezua berresten du eta erabateko desadostasuna agertzen du aztertutako egitateak terrorismotzat kalifikatzearekin, gazte auzipetuei neurrigabeko zigorrak ekarri baidiezaizkieke.

Hilabete hauetan zehar, makina bat izan dira Euskal Herrian osoan izan diren elkarretaratze, manifestazio eta mota guztietako ekitaldiak zeinetan pertsona, eragile zein instituzioek auzi honen baitan ematen ari den izugarritzko proportzionaltasun eza salatu dute.

Epealdi honetan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako instituzio nagusiek, tartean Nafarroako Parlamentuak zein Eusko Legebiltzarrak argi esan dute gertatuak ezin direla terrorismo ekintzat kalifikatu, kode penalaren 573. artikularenpean, eta ondorioz Nafarroan instruitu eta epaitu beharko litzatekeela.

Orain gutxi ere, Madrileko Gorte Orokorretako 74 diputatu zein senatarik, Europako Parlamentuko 52 diputatuk eta Hego Euskal Herriko 83 alkatek auziarengatik euren kezka agertu dute.

2017ko uztailaren 4ean jakin da zein eskaera egin duen Estatuko Fiskaltzak auzipetutako gazteentzako, 62 urte eta 6 hilabeteko eskaera gazteetako batentzat, 50 urte sei gazteentzat eta 12 urte eta 6 hilabete zortzigarrenarentzat. Zuzenbidezko Estatu batean onartezina litzatekeen neurrigabekeria.

Guzti honengatik Usurbilgo Udaleko Osoko Bilkurak honakoa onartzen du:

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

1. Usurbilgo Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik, kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita.
2. Usurbilgo Udalak konpromiso irmoa adierazten dute elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, zuzenbidezko estatu demokratiko baten berezko printzipioak direlako, eta adierazten dute kasu hau inguratzen duen neurrigabekeria normaltasun eta elkarbizitza demokratikoen aurkakoa dela.



Usurbilgo Udala

3. Usurbilgo Udalak Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babesten dute egitateak terrorismotzat kalifikatzeko zantzuak ez daudela dioenean, eta, beraz, berresten duenean Altsasun joan zen urriaren 15ean gertatutako egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñako epaitegiarena izan behar lukeela.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

9.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez dago galdera-eskaerarik.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:40etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.